



**bisita**  
**gidatuak**  
visitas  
guiadas

Goi mailako turismoa  
Un turismo de altura

  
Gorbeia

Euskal Herriko bihotz berdean kokatzen diren gune magikoek bisitaria harritu egiten dute haren irudimena piztuz. Inoiz aurkitu ez diren altxorrek dauzkaten haitzuloak, hotzikarak eragiten dituzten kondairak eta indar naturalek sortutako paraje natural zoragarriak.

Esaten dute lamiek zubiak altxatzen zituztela, sorginak mendi batetik bestera zebiltzala txokorik ederrenetan, kokatzen diren baseliza ederrak eraikitzea erabaki zuten arte. Duela urte ugari gure baso guztietan otsoak harripatzen zirela. Eskualde honetako erromanikoa herrietako jendeak eraiki zuela, erleek inoiz dastatutako ezirik gozoena egiten dutela, baserriek, iparraldera begira, ia leihorik ez dutela,...

Gorbeian sartzen ari zara.

Enclaves mágicos en el corazón verde del País Vasco sorprenden al visitante encendiendo su imaginación. Cuevas con tesoros nunca encontrados, leyendas que producen escalofríos y hermosos parajes creados por las fuerzas naturales.

Cuentan que las lamías erigían los puentes, que las brujas pasaban de un monte al otro hasta que decidieron construir las hermosas ermitas que invaden los rincones más bellos, que hace infinidad de años se han cazado lobos por todos nuestros bosques, que el románico de esta zona lo construyeron las gentes de los pueblos, que las abejas hacen la miel más dulce que jamás se haya probado, que los caseríos apenas tienen ventanas al norte,...

Estás entrando en... Gorbeia



[www.gorbeiaeuskadi.com](http://www.gorbeiaeuskadi.com)

## bisita gidatuak

## visitas guiadas



Urte osoan zehar egin daitezke bisita gidatuak.

Gutxienez 4 laguneko taldea.

Bisiten kontratazioa telefonoz egingo da.

945243828 / 645844087

Nahi dituzuen bisitak egin daitezke, zuk zeuk aukeratzen dituzun lekuak aukeratuz.

Hizkuntzak: gaztelera, euskara eta ingelesa

2 eta 5 € arteko prezioak

Las visitas guiadas se pueden realizar todo el año.

Grupo mínimo: 4 personas.

La contratación de las visitas se realiza por teléfono.

945243828 / 645844087

Además de las rutas propuestas se pueden hacer visitas adaptadas a los lugares que quiera el visitante.

Idiomas: castellano, euskera e inglés

Precios: de 2 a 5 euros.

### Turismo Bulegoak · Oficinas de Turismo

#### Araba · Alava:

Plaza Bea Murgia. 01130 Murgia

945 430 440

[turismo@gorbeialdea.eus](mailto:turismo@gorbeialdea.eus)

#### Bizkaia:

Plaza Zubiaur. 48410 Orozko

946 122 695

[turismo@gorbeialdea.com](mailto:turismo@gorbeialdea.com)

Urtegia: orain dela 50 urte...

Pantano: Hace 50 años...

4

Gazteluak eta jauregiak

Castillos y palacios

5

Zuia eta Urkabustaizko erromanikoa

Románico en Zuia y Urkabustaiz

6

Ibilbide Etnografikoa

Ruta Etnográfica

7

Mitologia Zuian

Mitología en Zuia

8

Hirigune historikoak

Cascos históricos

9

Zigoitiko Erromanikoa

Románico de Zigoitia

10

Villarrealeko bataila

La batalla de Villarreal

11

Erromanikoa Galdakaon eta Behe Arratia

Románico en Galdakao y la Baja Arratia

12

Nerbioi Bailara historikoa

El histórico Valle del Nervión

13

Arratia: Gorbeiaren magalean

Arratia: En las faldas del Gorbea

14

Mugan

En la frontera

15





urtegia: duela 50 urte

pantano:

hace 50 años

Ullibarri-Gamboa – Presa

Nanclares de Gamboa / *Langara-Gambo*

Ullibarri-Gamboako urtegiaren historiak Aldaietako K.a. az-tarnetatik 60. hamarkadara garamatza, non udalerrriaren herri batzuk, baserri ugari eta lur-eremu handiak ur azpian gelditu ziren.

Bisita honekin, hain garrantzitsua izan den historia hori berreskuratzea da helburuetako bat.

Bisitaldia ULLIBARRI-GAMBOA hasten da, hitzaren jatorriari erreparatuz gero erdi aroko Oinaztarren eta Ganboatarren borroken sorreran zerikusi handia izan zuela adierazten digu. Bertan, herriko leku garrantzitsuenak ikusi eta azalduko dira. Ondoren, URTEGIAREN PRESARA hurbilduko gara eta urtegiaren eraikitzearen historia azalduko da; honekin batera bitxikeriarik interesgarrienak ere kontatuko dira eta eraikuntza zibil handi arriskutsu eta talentutsu honek berarekin ekarri zituen gertaerak.

Amaitzeko, LANGARA-GANBOA herria ezagutuko da. Bertan, urtegia sortu aurretik herria eta ingurua nolakoa zen eta gaur egun, ordea, nolakoa den argituko da.

La historia del pantano de Ullibarri-Gamboa nos lleva desde los hallazgos de Aldaieta del siglo VI d.c hasta la década de los años 60 donde las aguas del pantano anegaron muchos de los rincones de este municipio, dejando huellas de case-ríos, pueblos y tierras de cultivo anegadas.

Rescatar esta historia se convierte en uno de los objetivos de esta visita guiada.

La visita comienza en ULLIBARRI-GAMBOA, cuyo nombre nos indica que tuvo mucho que ver en el surgimiento de las luchas medievales entre Gamboinos y Oñacinos, donde se ven y explican los lugares más importantes de esta localidad, de aquí se va a la PRESA DEL PANTANO donde se cuenta la historia de la construcción del embalse con sus anécdotas más interesantes y todos los acontecimientos que esta gran obra civil arriesgada y talentosa trajo consigo.

Por último, se visita NANCLARES DE GAMBOA, localidad a orillas del pantano donde se explica cómo era ese municipio antes de la construcción del embalse y cómo es hoy en día.



## gazteluak eta jauregiak

castillos y

palacios

Gopegi - Manurga - Letona

Gaztelu eta jauregiez ari garenean, gure irudimenak ipuinetako tokietara egiten du hegan. Urrutikoak, printze eta prinzesak dauzkatenak... Hala ere, guk Zuiako Kuadrillan leku hauek duela 800 urte baino gehiago nolakoak ziren imajinatuko dugu.

Horretarako Gorbeialdeko Kuadrillako hainbat toki ezberdin bisitatuko dugu, eta, denborak eragindakoa ikusiko dugu, helarazi dizkiguten kondairak eta beraien harriek gaur egun kontatu ahal digutena entzunez. Bisita honetan honako leku magiko hauek deskubrituko ditugu:

GOPEGIn antzinako elizaren ondoan Goikoleako dorre-jauregira hurbilduko gara. Ondoren MANURGAraino joango gara, non desagertutako hainbat dorretxeren berri izango dugun (Elexalde, Iturrizar) eta Hurtado de Mendozatarren dorretxea baita eskualdean ezagunenetakoa den Berastegitarren jauregia ikusi ahal izango ditugu. Azkenik, LETONARA barneratuko gara, han Lopez de Letona (Artxaga) jauregi-etxeak harriturik utziko gaitu eta antzinako Nafarroako Erreinua defendatzen zuen gaztelu bateraino paseoa burutuko dugu, Zaitegiko gaztelua hain zuzen ere.

Cuando hablamos de castillos y palacios, nuestra imaginación vuela a lugares de cuento, lejanos, con príncipes y princesas, pero nosotros vamos a imaginarnos como eran en realidad éstos en la zona de Zigoitia hace más de 800 años.

Para ello visitaremos diferentes lugares de la Cuadrilla de Gorbeialdea y veremos lo que el paso de los años ha traído consigo, pero oyendo las leyendas que nos han transmitido y todo lo que ellos todavía nos pueden contar. En esta visita descubriremos:

En GOPEGI cerca de la antigua iglesia nos acercaremos hasta la torre-palacio de Goikolea. Después nos desplazaremos hasta MANURGA, donde tendremos noticias de varias casas torre desaparecidas (Elexalde, Iturrizar) y podremos contemplar la casa torre de Hurtado de Mendoza y uno de los palacios más afamados de la zona como es el palacio de los Berastegi. Por último nos desplazaremos hasta LETONA donde nos sorprenderá la casa palaciega de Lopez de letona (Argatxaga) y realizaremos un paseo hasta uno de los castillos que defendía el antiguo reino de Navarra, el castillo de Zaitegi.

Zuiako eta

Urkabustaizko erromanikoa

románico en

Zuia y Urkabustaiz

Santuario de Oroko Santutegia - Beluntza  
Goiuri - Cervecería Biais Garagardotegia

Zuiako haranetik Urkabustaizeraino, Erdi Aroan erromaniko mota ezberdin bat hedatu zen, landatarra, bakarra, XII eta XIII. mendeko hondarrak dauzkana, eskualdeko eliza askotan. Bisitaldi honetan ondoko lekuak deskubrituko ditugu:

Lehenengo geltokia OROKO SANTUTEGIAN izango da. Zuiako haitz ezagunenean kokatuta, zerbait berezia izan behar du lekuak Burdin Aroan bertan jada pertsonak kokatu zitezten. Bisitariak magia lekuan bertan dagoela frogatu ahal izango du, leku gutxi baitago hain ikuspegi pribilegiatuak dituena. Ermita barruan, Ama Birjinaren irudia, XIII mendeko altxorra, erretaula barrokoaren barruan kokatzen da. Hemen santutegiaren eraikitze prozesuaren fase ezberdinak ezagutu ahal izango ditugu.

Ondoren, eliza erromaniko ederra duen BELUNTZA herrian ezagutuko dugu, eta amaitzeko, GOIURIra gerturatuko gara. Bertan hiru txoko interesgarri harrituko gaituzte; Santiagoren omenezko eliza erromanikoak, errotak eta ur-jauziak, Kuadrillako inguru natural preziatuenetako bat den; 100 metroko ur jauzia du eta Gorbeiaiko haizeek mugitzen duena.

Ez dugu ibilbidea amaitu nahi artisau erara elaboratutako garagardotan murgildu gabe. Horretarako BAIAS GARAGARDOTEGIAraino gerturatuko gara.

Desde el valle de Zuia hasta Urkabustaiz, en la Edad Media se extendió un tipo de románico diferente, rural, único, con restos del siglo XII y XIII en muchas de las iglesias de la comarca. En esta visita descubriremos los siguientes lugares:

Nuestra primera parada es el SANTUARIO DE ORO, enclavado en las peñas más famosas de Zuia, algo mágico debe de tener este lugar para que ya en la Edad de Hierro el hombre habitase esta montaña. El visitante comprobará que la magia está en su propia ubicación, puesto que pocos lugares existen con vistas tan privilegiadas. Dentro de la ermita, la imagen de la Virgen, una joya del siglo XIII, se eleva en las alturas de su retablo barroco. Aquí descubriremos las diferentes fases de construcción del santuario.

A continuación descubriremos BELUNTZA, con su hermosa iglesia románica y para acabar, nos encontraremos en GOIURI, donde nos sorprenderán tres interesantes lugares; su iglesia románica de Santiago, el molino y la cascada, uno de los parajes naturales más preciados de la cuadrilla, un salto de agua de 100 metros de altura, que arrastra los vientos procedentes del Gorbeia.

No queremos cerrar esta ruta sin sumergirnos en la elaboración de cerveza de forma artesanal que lleva a cabo BAIAS GARAGARDOTEGIA.





ibilbide

etnografikoa Zuian

ruta etnográfica

en Zuia

Sarria

Ezti museoa / Museo de la miel (Murgia)

Zuiako basoetan paseatzea eta zubi eta errekek errota zaharretara korrontea daramatela ezagutzekoak, Zuiako biztanleak eta baserrietako bizitza nolakoak ziren ezagutzen lagunduko digute. Horretarako, SARRIARA gerturatuko gara. Han, errota zahar bat eta bere funtzionamendua ezagutuko ditugu. Bidexka batetik jarraituz, eta mendeetan zehar Gorbeiaiko tontorretik datorren ura jaisten ikusi duen zubi zahar bat gurutzatuz, Sarriako garbitegi batetik igarota karobi zahar bateraino iritsiko gara. Bertan, tradiziozko karegintzari buruz eta galdutako ofizio horri buruz hitz egingo da. Bukatzeko, erlezainaren munduan sartuko gara, lan zeharo zaharra Zuian, horrela MURGIako eztiaren museoa ezagutuko dugu.

Pasear por los bosques de Zuia y descubrir que puentes y cauces de ríos llevan corrientes que van a parar a viejos molinos, nos van a ayudar a conocer cómo era la vida de las gentes de Zuia y la vida en el caserío. Para eso nos vamos a acercar a SARRIA, donde visitaremos un viejo molino y conoceremos su funcionamiento. Después seguiremos por una senda, atravesando un viejo puente que ha visto bajar durante siglos agua procedente de la cumbre del Gorbeia y que nos llevará a un antiguo lavadero y de aquí a un viejo calero donde hablaremos sobre la fabricación artesanal de la cal y ese perdido oficio de calero. Para finalizar nos adentraremos en el mundo del apicultor, una tarea antiquísima en Zuia y visitaremos el museo de la miel en MURGIA.







## mitologia Zuian

mitología

en Zuia

Murgia



Mitologiak historiaurreko garaietan du sorburua, eta, mendeetan zehar aldaketa asko jasan baditu ere, maiz zonaldeko pertsonak ahaztu ere egin dute. Kondaira magiko horiek berreskuratzeko eta irudimenak hegan egiteko leku ezberdinetan zehar ibiltzea da proposatzen duguna. Honetarako MURGIA kokatu eta gordeleku ezberdinak ezagutuko ditugu. Bere kale eta txokoen artean ibiliko gara, eta ilusioaren tailerrean inguru hauek betidanik edertu dituzten fabula eta kondairak sortuko ditugu.

La mitología parte desde los tiempos prehistóricos y durante siglos ha sufrido muchos cambios y en algunos casos el olvido de las gentes de la zona. Recorrer lugares para rescatar estas leyendas mágicas y que hagan volar la imaginación es lo que proponemos en esta ruta. Para esto nos ubicaremos en MURGIA y conoceremos diferentes escondrijos. Recorreremos sus calles y rincones y fabricaremos en el taller de la ilusión, fábulas y leyendas que siempre han adornado estos parajes.



gune

historikoak Zuian

los cascos

históricos en Zuia

Legutio - Ibarra (Aramaio)  
Quesería / Gaztandegia

Ondarearen babesean inplikatzek ahalegin maximoa eskatzen du gizarte eragileengandik, eta gure hirigune historikoetan haien berreskurapenerako egiten diren ahalegin guztiak ezagutzera ematea ibilbide honetara hurbiltzen diren guztiei transmititu nahi diegun oinarritzko irakaspena da.

Haien historian zehar asko sufritu duten hirigune historiko bi, Legutio eta Ibarra, gure bidean gurutzatuko dira eta mendeetan zehar haietan gertatutakoa xehetasun osoz kontatuko digute. Horretarako, lehenengo eta behin LEGUTIOko hirigune historikora hurbilduko gara, azkeneko Gerrate Zibilean guztiz hondatua, non bere aspaldiko harresiak ikusi, entzun eta pareta zaharren barruan gorde duena ezagutuko dugun.

Ondoren arabar Suitza bezala ezagutzen den (Alfontso XIIIak inguru hauetan egin zuen bidaia batean horrela esan zuen) hirigune historikoa ezagutzera joango gara, ARAMAIOra hain zuzen ere. Kondairaz betetako inguru, mendeak dituzten baserriz, ermitaz eta mendiz inguratua. Mari "Anbotoko dama" edo "Barajuengo Jauna" protagonistatzat dituzten kondaira ezberdinen bizilekua.

Bukatzeko gaztandegi bat bisitatuko dugu. Bertan, Euskadiko artzainen bizimodua eta usadioak xehetasun osoz erakutsiko digute.

Implicarnos en la protección del patrimonio supone un esfuerzo de todos los agentes de la sociedad, y el poder dar a conocer los esfuerzos que se hacen en nuestros cascos históricos por su recuperación es una lección fundamental que queremos transmitir a todo aquel que se acerque a esta ruta.

Legutio e Ibarra, dos cascos históricos que han sufrido mucho a lo largo de su historia, se van a cruzar en nuestro camino y nos van a contar con todo detalle lo que a lo largo de los siglos ha sucedido en ellos. Para eso primeramente nos acercaremos al centro histórico de LEGUTIO, muy deteriorado durante la última guerra civil, que nos contará lo que un día sus antiguas murallas vieron, oyeron y sellaron en sus muros.

Luego partiremos a conocer el casco histórico de la llamada suiza alavesa (según contó Alfonso XIII en uno de sus viajes por estas tierras), ARAMAIO, en un entorno plagado de leyendas, caseríos centenarios, ermitas y montes, cuna de personajes tan emblemáticos como Mari "la dama de Anbotu" o "el Señor de Barajuen", protagonistas de numerosas leyendas. Para terminar visitaremos una quesería donde tendremos la oportunidad de conocer con todo detalle los modos de vida y costumbres del pastor en Euskadi.



## erromanikoa Zigotian

románico

en Zigoitia

San Pedro de Gorostiza

Olano - Zestafe

Erromaniko hau biztanle gutxiko herrietan garatutako landa eremuko adierazpena da, Goi Erdi Aroan zabaldu eta XII eta XIII. mendeetan batez ere loratu zena, bizigune txiki horiek parrokia-tenpluak eraikitzeke gaitasun ekonomikoa lortu zuten unean hain zuzen ere. Estilo berantiarreko erromaniko baten aurrean gaude, arkuak zorrozuta dituen, dekorazio naturalistaduna arkibolta zein kapiteletan. Hala ere, aipagarriena, burualde laua duten tenpluen ugaritasuna da, agian, eraikitzen zituzten herrixken baliabide falta dela eta horrela eraikiak.

OLANOko herrian esaterako, bertako eliza erromanikoa eta barruan gordetzen duen erretaula ospetsua ezagutuko ditugu. Eliza erromanikoa izaki, garai horretako elementuak ditu. Bereizgarriena, aldiz, XVI. mendeko (gotikoa) erretaula da, margotutako taulaz, erliebez eta balio handiko tailer osatua. Gainera, birgaitutako errota ezagutzeko parada ere izango dugu,

Gero ONDATEGI-ra hurbilduko gara. Bertan San Lorenzo elizarekin topo egingo dugu, Akosta eta Gopegiko elizarekin batera XI.mendeko bide garrantzizuetan kokatu zirenak. Fraide eraikitzaileek eraiki zituzten, nafarroako erregeek, oso egoera ezegonkorra zen lurraldea babesteko saioan.

El románico en Zigoitia es un arte rural desarrollado en aldeas de pocos habitantes, esparcidas desde la Alta Edad Media, y que florece sobre todo a finales del s. XII y en el s. XIII, momento en que aquellos pequeños núcleos de población adquieren capacidad económica que les permite levantar sus templos parroquiales. Es un estilo tardío, con arcos ya apuntados e incipiente decoración naturalista en arquivoltas y capiteles. Lo más destacado sin embargo es la abundancia de cabeceras rectas en sus templos, acaso por la penuria de medios de los pequeños pueblos que los erigían.

En OLANO visitaremos la iglesia con su afamado retablo, siendo de estilo románico conserva restos de dicho periodo. Pero destaca especialmente por su retablo mayor, del siglo XVI (gótico), formado por tablas pintadas, relieves y tallas de gran valor. Además tendremos la oportunidad de visitar el molino rehabilitado.

Luego nos dirigiremos a ONDATEGUI, aquí nos vamos a encontrar la iglesia de san Lorenzo, una iglesia junto con la de Acosta y Gopegui dentro de caminos importantes en el siglo XI y edificadas por monjes constructores y patrocinadas por la monarquía navarra intentando asegurar un territorio muy inestable de por sí.





## Villarrealeko bataila

la batalla

de Villarreal

Nafarrate - Murua

1936ko azaroaren 30ean hasi zen Villarreal-eko Bataila, hainbat hilabete geroago 1.500 hildako eta 5.500 zauriturekin bukatuko zena. Euskal armadak, Errepublikaren zerbitzura, Legutio erasotu zuen. Herria, altxatutako nazionalak hartuta zegoen. Gorbeialdeko Kuadrillako zonalde hau fronteko oso zati garrantzitsua izan zen, Nafarratetik, Eribe, Elosu, Zestafe, Okoizta, Etxaguenera... Nafarrate eta Murua izan ziren herri hondatuenetakorikoak: elizak lehertu egin zituzten, etxeak sakeatu... Familia askok, horren ondorioz, ihes egin behar izan zuten, eta itzultzean, berriro zerotik hasi, desegindako etxeetan, abererik gabe eta lurrak gorpuz estalita.

Gertakari guzti hauen lekuko, beraien etxebizitza utzi behar izan zuten pertsonak, izkutatuta egon zirenak edo zaurituak gertatu zirenak zaintzen geratu zirenak ditugu. Pertsona guzti hauei, garaiko dokumentuei eta gertakari hauek ezagutzeko lan egin dutenei, bisita honen testigantza sor diegu.

Iparraldeko fronteari bisita historikoa, historia garaikideari bisita bat, Gorbeialdeko Kuadrillako bihotzean gertatutako bataila nabarmena. Gorbeialdeko mendien begiradapean, historia aldatzeko prest egon zen bataila.

El 30 de noviembre de 1936 se inició la Batalla de Villarreal, que concluiría un mes después con la cifra de 1.500 muertos y más de 5.500 heridos. El ejército vasco, al servicio de la República, lanzó su ofensiva contra Legutio. La población estaba tomada por los nacionales sublevados. El frente recorría gran parte de la Cuadrilla de Gorbeialdea: Nafarrate, Eribe, Elosu, Zestafe, Acosta, Etxaguen... Nafarrate y Murua fueron, entre otros, los pueblos más destruidos; se volaron las iglesias, las casas fueron saqueadas... Muchas familias se vieron obligadas a huir. Al volver, tuvieron que empezar de cero, en casas desmanteladas, sin ganado y con sus tierras sembradas de cadáveres.

Fueron testigos de estos acontecimientos muchas personas que abandonaron sus casas para ir a vivir a otros lugares, permanecieron ocultas o ayudaron a los heridos. A todas estas personas, a los documentos de la época y a los que han trabajado en pro de conocer estos acontecimientos debemos el testimonio de esta visita.

Una visita a la historia del frente del norte, una visita a la historia reciente, una visita a una importante batalla en el corazón de la Cuadrilla de Gorbeialdea, ante la atenta mirada del monte Gorbea, que pudo cambiar el signo de la historia.



erromanikoa Galdakaon

eta Behe Arratian

románico en Galdakao

y la Baja Arratia

Galdakao - Usansolo - Lemoa - Bedia

Egungo GALDAKAO ulertzeko historian atzera jo eta garai ezberdinak ezagutuko ditugu. oilarraren monumentua, esaterako, herriaren kokapen estrategikoaren garrantzia ulertzeko erabiliko da. Elexalde auzoan, Bizkaiko tenplu erromaniko garrantzitsuenetako bat ezagutuko da: Andra Mariaren omenezko eliza. Galdakaoko eraikin zaharrenetarikoa bat da. XIII.Mendean eraikia eta XVI. Mendean zabaldua, ezin dugu alde batera utzi XII.mendetik datozkigun zenbait elementu.

Erdi Arotik aldendu gabe, USANSOLOra gerturatu eta Erdi Aroan sakontzen jarraituko dugu. Han, Lekue dorretxea bisitatu dugu eta horrela eskualdeko iragan borrokalaria izango dugu hizpide. Modu berean zonaldeko zenbait baserri bisitatu eta zonaldean izan zuten garrantzia azpimarratuko dugu.

Erdi Arotik XX. mendera salto egingo dugu eskualdea eraldatu duen industriaren adierazgarri bat ezagutzeko. Horretarako LEMOAKo harrobira inguratuko gara.

Ibilbidea amaitzeko, BEDIA n herri-egitura mantentzen duen herri bat ezagutuko dugu, baserriekin, udaletxea, herriko plaza eta eliza.

Para conocer el GALDAKAO de hoy en día iremos atrás en la historia y conoceremos diferentes momentos. Así, utilizaremos el monumento al gallo para entender la estratégica situación del pueblo. En el barrio de Elexalde conoceremos uno de los templos románicos más importantes de Bizkaia: la iglesia de Andra Mari. Se trata de uno de los edificios más antiguos de Galdakao, levantada en el siglo XIII y ampliada en el siglo XVI, pudiendo fechara alguno de los elementos de la iglesia en el siglo XII.

Sin alejarnos de la Edad Media, nos acercaremos a USANSOLO, visitando la casa-torre de Lekue que nos recuerda ese pasado belicoso de la comarca, así como el legado de importantes caseríos de la zona.

Desde la Edad Media daremos un gran salto al siglo XX, para conocer uno de los elementos industriales que ha transformado la comarca; la cantera de LEMOA.

Para finalizar esta ruta, en BEDIA conoceremos un pueblo que ha mantenido su antigua estructura urbana, con caseríos, el ayuntamiento, la plaza del pueblo y la iglesia.





## Nerbioi bailara historikoa

el histórico

valle del Nervión

Ugao-Miraballes - Arakaldo - Orozko

Ibilbide honen ardatza Nerbioi ibaia izango da. Ibilbide hau Ugao-Miraballesten hasita, errekan gora antolatuko dugu.

Denboran zeharreko bidai bat egingo dugu UGAO-MIRABALLES hiribilduan, bere fundazioa ezagutzeko. Hiribilduei buruz eta hauen garrantziari buruz hitz egingo da. Iragan handiko hiribildura daukagu, eta iragan hau ederki ezagutu ahal izango dugu bere kaleetan, iturrietan eta eliza zein basilizetan. Hemen ere, bere iragana ezagutu ahal izateko, Historia ezagutzeko zentroa bisitatuko dugu. OROZKOn, aldiz, Gorbeia mendigunearen begiradapean, bere lurretan dagoen dorretxe kopuru handia aprobetxatuz, Erdi Aroko jauntxoei buruz eta beraien botereari buruz hitz egingo da. Orozkon geldialdi ezberdinak egingo dira: Torrelanda auzoan, Zubiaurren eta Aranguren auzoan amaituko da.

Orozko iritsi aurretik ARAKALDOn egingo dugu sartu-irtena azkar bat, herri txiki-txiki honen berezitasun batzuk ezagutzeko

Ugao-Miraballeseko Interpretazio Zentruari eta Orozko Museoari garrantzia berezia emango zaie.

El centro de esta ruta será en río Nervión. Organizaremos la ruta subiendo la cuenca del río y comenzando en Ugao-Miraballes.

Viajaremos en el tiempo hasta la fundación de la villa de UGAO-MIRABALLES en el año 1375. Las villas tendrán toda nuestra atención, conoceremos como surgieron y como se levantaron. Se trata de una villa con un gran pasado, que se refleja en sus calles, fuentes y ermitas y lo podremos conocer de primera mano en el centro de interpretación histórica de la villa. En OROZKO, bajo la atenta mirada de las colinas del macizo del Gorbeia, sin embargo, aprovechando las numerosas casas torre que pueblan sus campos, se hablará de los señores de la edad media y de su poder. Se harán varias paradas: En el barrio de Torrelanda en Zubiaur y finalizaremos en el barrio de Aranguren

Antes de ir a Orozko haremos una breve parada en ARAKALDO, para conocer algunas de las peculiaridades de este minúsculo pueblo.

Se hará hincapié en el Centro Interpretación de la Historia de Ugao-Miraballes y en el Museo de Orozko .



Arratia:

Gorbeia

Arratia:

en las faldas del Gorbea

Artea - Areatza - Zeanuri

Bisita honen helburua Arratia bailarako Erdi Aroan eta herri-arkitekturan sakontzea da. Horretarako elementu ezberdinetan oinarrituko gara.

ARTEA izango dugu lehenengo bisitatzeko tokia. Artearen izen Zaharra castillo de Elejabeitia da, castillo eta Elejabeitia parrokiak bat egitetik sortu baitzen. ARTEAn Elexabeitia eliza bitxia ezagutu ostean Areatzara egingo dugu salto. AREATZAn, bisitariak Erdi Aroko hiribildu bat ezagutuko du: zergatik sortu ziren, nolako eraikinak egiten zituzten eta nolakoa zen haien bizimodua. Barroko garaia jauregiak, Erdi Aroko hiribilduetako etxeak edo San Bartolome eliza izango dira ezagutuko ditugun elementurik garrantzitsuenak.

Ibilbidea amaitzeko, herri-arkitekturaren zenbait adibide ezagutuko dugu: baserriak. Horretarako ZEANURIraino gerturatuko gara eta landa bizitzako ustiapen elementu garrantzitsuenak antzemango ditugu. Dorretxeak, jauregiak eta baserriak ingurune eder batean elkartzen dira. Horrela harria, leku txiki eta ospeletan, bisitariarentzat izugarri ederrak bilakatuko dira.

El objetivo de esta visita es ahondar en la arquitectura medieval y rural del Valle de Arratia. Para eso nos basaremos en diferentes elementos.

El primer lugar a conocer será ARTEA, cuyo nombre antiguo es “castillo de Elejabeitia”, que surgió e la unión de dos parroquias, Castillo y Elejabeitia. Después de conocer la curiosa iglesia de Elexabeitia en ARTEA nos dirigiremos a Areatza. En AREATZA el visitante conocerá una villa medieval: por qué surgieron, qué tipo de construcciones realizaban y cómo vivían. Palacios barrocos, casas urbanas medievales o la iglesia de San Bartolomé serán algunos de los atractivos.

Para terminar la visita, se conocerán diferentes ejemplos del elemento más importante de la arquitectura rural: los caseños. Para eso nos acercaremos a ZEANURI y conoceremos las explotaciones más importantes de la vida en el campo. Casas torre, palacios y caseños se funden en un singular entorno en el que la piedra hace que los rincones más sombríos de este pequeño lugar sean atractivos para el visitante.





mugan

en la frontera

Otxandio - Oleta (Aramaio) - Ubide

Mugatuaren ibilbidean sartzen ari gara oraingo honetan. Hemen, Gorbeia eta Anboto magikoaren mendi-hegaletan kokatuta, ohiko eta aitzinako kondairek leku honen muga zehaztu nahi izan dute. Ibilbide honetan, mugan bizi izan den herri bat ezagutuko dugu. Lehenengo eta behin, OTXANDIO. Horrela ulertuko dugu bere hiribildu izaera (Araba eta Bizkaiko mugan) eta XX. mendeko Espainiako Gerrate Zibilak herrian izan zuen eragin nabarmena. Otxandion bi geldialdi egingo dira: udaletxe parean Erdi Aroak bere arkitekturan izan zuen eragina ezagutzeko eta batez ere iragan aberats bat erakusten digun eraikin ugariz jositako barroko garaia. Ondoren Andikona Plazara gerturatuko gara, non Otxandion XX. mendeko bonbardaketa ezagutuko dugun.

Otxandiotik Aramaioko OLETA herrira joango gara, Anbotoren magalean kokatzen den Arabako inguru ederrenetako batera. Bertan Limitado-aren kasua azpimarratuko dugu. Zelai berdeetan harnasa hartuko dugu eta marroi koloreko baserrietan begirada itsatsiko dugu.

Amaitzeko, UBIDERaino hurreratuko gara. Errekaren inguruan eraikia, Sartu eta berehala eragin ingeleseko jauregi eder batek agur egingo digu. Gaztelatik Bilbora zihoan errege galtzada zaharra zeharkatzen duen herri polit hau.

Entramos en el limitado, una zona que se encuentra entre Álava y Bizkaia. Frecuentes y antiguas leyendas e historias marcan la línea divisoria de este lugar, que es observado tanto por el macizo del Gorbea como por el mágico Anboto. En esta ruta primeramente conoceremos un pueblo que siempre ha vivido en la frontera OTXANDIO. Así entenderemos su carácter de villa (en la frontera entre Álava y Bizkaia) y también las repercusiones de la Guerra Civil Española en el siglo XX. En Otxandio se realizarán dos paradas: Una frente al ayuntamiento, para conocer así la influencia de la Edad Media en su arquitectura y sobre todo en la época barroca, con numerosos edificios que nos recuerdan ese pasado majestuoso de la villa. Luego nos dirigiremos a la Plaza de Andikona, donde recordaremos el bombardeo de Otxandio en el siglo XX.

Desde Otxandio se viajará al pueblo de OLETA de Aramaio, hacia uno de los parajes más bellos de Alava en las faldas del Anboto y destacaremos el caso del Limitado, deteniéndonos en los verdes parajes y en los marrones de sus caseríos.

Por último nos acercaremos a UBIDE, bonito pueblo en el que nada más entrar nos dará la bienvenida un bonito palacio de estilo inglés, quedando a orillas de la antigua Calzada Real que iba de Castilla a Bilbao construido alrededor del río.



[www.gorbeiaeuskadi.com](http://www.gorbeiaeuskadi.com)

